

Ezpalak

JON TORNER
GORKA BEREZIARTUA

Uxue Alberdi *Aulki bat elurretan* (Elkar) ipuin liburua argitaratu du. Suediara emango gaituzten istorioak biltzen dituen lan horrekin, Igartza Saria irabazi zuen idazle elgoibartarrak 2005ean.

Amaia Iturbide bilbotarrak *Lore mutuak eta tuaren ezkontzak* izenburuko poema liburua plazaratu du. Madrilgo Atenea Linguistika Aplikatuaren Zentroak argitaratu du Iturberen laugarren poema liburua, Biblioteca Vasca bilduman. Bilduma horretako gainontzeko lanetan bezala, jatorrizko bertsoaren ondoan gaztelaniazko itzulpena dute poemak guztiek.

Agustin Tife ren eskulturak eta Txabi Sagarzazu, Carlos Bizcarrondo eta Javier Chocarro pintoreen koadroak izango dira ikusgai Donostiako Kutxa Boulevard aretoan, martxoaren 1era bitartean. Beheko irudiko paisaia Javier Chocarrok margotu du.



Gilberto Gil musikari brasildarrak kontzertua eskainiko du hilaren 27an Gasteizko Principal Antzokian. Caetano Velosorekin batera, musikari belaunaldi oso baten erreferentzia da lau hamarkadaz doinu tradizionalak eta tendentzia berriak maisutasunez uztartu dituen musikari hau.

40 film erakutsiko dituzte Gasteizko Euskal Zinemaren Astean

ZINEMASTEIA Gasteizko Euskal Zinemaren Astean hogeita hamar film luze inguru eta beste hainbeste film labur eskainiko dituzte, otsailaren 26tik martxoaren 3ra bitartean. Aurrenekoz, Krea zentroak eta NEFF zinema jaialdiak elkarlanean antolatu dute jada 23. edizioa heldu den ekimena. Ohi bezala, azken hamabi hilabeteetan zinema aretoetan ikusgai izan diren euskarazko eta gaztelaniazko filmak proiektatuko dituzte Vital Kutxa Fundazioaren aretoan. Besteak beste, Kimuak programako film laburrak eta *Kutsxidazu bidea*, *Ixabel*, *Zeru horiek*, *El síndrome de Svensson*, *La distancia* eta *Locos por el sexo* filmak emango dituzte. Zinemasteiak izaera lehiakorra ez duen arren, hiru sari banatuko dira: publikoak film labur eta luze onenak aukeratu ditu, epaimahai batek film labur onena hautatuko du eta horiez gain, euskal zinemaren alde lan egin duen pertsona edo talde bati omenaldia eskainiko diote. Sarreraren salmentatik lortutako sosa Mendizabala Institutuko ikus-entzunezko ikasleei laguntzea xede duen beka bat bultzatzeko bideratuko dira.

Egitarau osoa: www.neffestival.com/eu/muestra_zinemasteia.as.

[Karlos Linazasoro idazle eta liburuzainak El Diario Vascon:](#)
«Liburuaren geroa beltza da (...) Google-ek liburutegi erraldoi bat ipini nahi du sarean (...) Izango du dirurik aski nahi duen erokeria oro egiteko, baina ez daki liburuaren inportantzia ez dagoela formatuan, edukian baizik (...) Google-ek dioenez, egitasmoaren onura nagusia liburutegiaren demokratizazioa izango da: liburu guztiak mundu guztiaren eskura ipiniko ditu. Guztiaren eskura, konektatuta bazaude, jakina. Baina, egun, munduan, 800 milioi analfabeto dago, eta horiek ez daukate ezerekin konexiorik, ezpada miseria, gosea eta heriotzarekin».

[Joxe Aranzabalek Faraa blogean, Karlos Linazasorok esandakoei erantzunez:](#) «Nik dakidala, inork ez du zalantzan jarri Tolosako liburutegia munduan analfabeto mordo dagoelako, ez eta Koldo Mitxelena kulturuneko edo Deustuko Unibertsitateko, hiru baino ez aipatzearen. Susmagarria da era horretako deslejitimazioak agertzea proiektua digitala denean. Nik ere maite ditut liburuak –beharbada ez Karlosek beste, baina maite ditut– (...) Baina ez nau kezkatzen teknologiak zenbateraino aldatuko duen liburua, zeren une jakin batean irakurtzeko aukeratzeko badugu beste euskarri bat, izango da liburua baino hobea delako».

Baltegi landa etxea



Baltegi Landa Etxea
Murgindueta bidea
31849 Iruñeta (Nafarroa)
Tel.: 649 23 45 49
e-posta: baltegi@sakanerria.com
web orria: www.baltegi.com

Utikan Euskadi Sariak manifestua aurkeztu dute

JOAN DEN OSTIRALEAN hogeita hamar idazle inguruk izenpetutako *Utikan Euskadi Sariak* manifestua aurkeztu zuten Donostiako Boulevardeko kioskoan. Manifestu horren bidez sinatzaileek Euskadi Sarietan parte hartzeari uko egin diote.

Txillardegi, Josu Landa, Edorta Jimenez, Xabier Mendiguren Elizegi, Julen Gabiria, Iñigo Aranbarri, Koldo Izagirre, Lander Garro, Jon Alonso, Eider Rodriguez eta Markos Zapiain dira, batzuk aipatzearen, manifestuarekin bat egin dutenak. Gainera idazle eta itzultzaileek beren atxikipena adierazteko web gune bat jarri dute martxan, www.utikan.com helbidean.

Euskadi Sarietan beren lanak aurkezteari uko egin dioten idazleek hainbat arrazoi eman dituzte erabaki hori azaltzeko. Besteak beste “sarion helburua ez dela literatur kalitatearen gaineko ebazpen zintzoa ematea” uste dute dokumentua izenpetu dutenek. “Aginteari otzana zaion jardun intelektual eta literario bat sortzea” leporatu diote sinatzaileek sari horiei, horretarako “antolamendu instituzionaletan behin eta berriz ageri den literatur aditu multzoaz eta zenbait erakunde gremialen dependentsiaz” baliatuz.

Horrekin batera, Jon Alonsok ARGIAko Urtekarian salatutakoaren haritik, “zenbait teknikari, kritikari eta epai-mahaikok osatzen duten literatur sistema kudeatzen duen multzo horrek, irregulartasunak egin eta ontzat ematerainoko jokabidea erakutsi” izana txarretsi dute manifestua izenpetu dutenek.

Azken urteetan Euskadi Sariak behin baino gehiagotan izan dira polemika iturri. 2003an Koldo Izagirrek, itzulpengintza alorrean finalista zelarik, uko egin zion onespren agiria sinatzeari eta sarietatik kanpo geratu zen. Hurrengo urtean Xabier Montoia eta Jon Alonsok ere uko egin zioten onespren agiri bera sinatzeari, baina epaimahaikak beren obrak aintzat hartzea erabaki zuen. 2005ean berriz, Alonsok duela gutxi aldizkari honetan eskainitako elkarrizketan azaldu bezala, onespren agiria baztertzea erabaki zuten epaimahaikide eta instituzioek.

Azken urteetan Euskadi Sariak behin baino gehiagotan izan dira polemika iturri. 2003an Koldo Izagirrek, itzulpengintza alorrean finalista zelarik, uko egin zion onespren agiria sinatzeari eta sarietatik kanpo geratu zen. Hurrengo urtean Xabier Montoia eta Jon Alonsok ere uko egin zioten onespren agiri bera sinatzeari, baina epaimahaikak beren obrak aintzat hartzea erabaki zuen. 2005ean berriz, Alonsok duela gutxi aldizkari honetan eskainitako elkarrizketan azaldu bezala, onespren agiria baztertzea erabaki zuten epaimahaikide eta instituzioek.



Jaso astero Argia etxean
Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara.

Urtebeteko harpidetza
2007ko prezioak
130€ Hego Euskal Herrian
160€ Ipar Euskal Herrian

Izen deiturak: _____
Helbidea: _____ Posta kodea: _____ Herria: _____
Hentaldia: _____ Jaloteguna: _____
N.A./I.F.K.: _____ Tel./Faxa: _____ e-posta: _____

Ordaintze mota: Bankuz
 Taloiaz
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L-ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647

Bankuz ordaintzekoak bete zeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa: _____
Titulara: _____ N.A./I.F.K.: _____
Titulararen helbidea: _____ Titulararen telefonoa: _____
Entitateak: _____ Sukurtziala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____
Data: _____ Sinadura: _____

aukeratu gure argi etxerri aparta

"Garxi" komikia

"Lauburu" mahai-jolasa

"Txoriak txori" lamina

%25eko beherapena ikasle bazara*



Argia saria 2007ko otsailaren 25a artean. Argia saria 2007ko otsailaren 25a artean. Argia saria 2007ko otsailaren 25a artean.